

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lucia Egues Saizar

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Elduaingo Errekalde baserrian jaio zen 1925ean. Aita Zorregieta baserrikoa zuen eta ama Berastegiko Etxoingoa. 7 senide ziren. 4 urte ingururekin hasi zen Elduaingo eskolan, baina 6-7 urterekin Berastegiko Eldua auzora hasi zen eskolara, bertako maistra oso ona baitzen. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Ezkondu ostean Berastegiko Eldua auzoan bizi izan da, paper-fabrikak bertako langileentzat egindako etxeetan (aitak paper-fabrika lan egiten zuen). Hiru semeren ama da. Dolores ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BRS-015

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-17
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

BRS-016

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aitak eskolarako gaitasuna, baina aukerarik ez

- **Erref:** BRS-016/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren abizenak: Egües Eraso. Eskolarako gaitasuna omen zuen, baina ez zuen aukerarik izan. Plazaolako trenbidean garraio lanean ibili zenean, zenbat irabazten zuen kontuak ateratzen ibiltzen omen zen, matematikako ariketak egiten. Idazteko zaletasuna ere ba omen zuen.

2. Umea jaiotakoan, atsolorra

- **Erref:** BRS-016/004
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Umeren bat jaiotzen zenean amak umea elizara eraman behar izaten zuen, "aurkeztera". Eta handik bueltan bazkaria edo merienda ematen zitzairen senide edo ingurukoei. Atsolorra ("Atso lehorra" izango dela uste dute) deitzen zitzaion. Normalean emakumeak biltzen ziren atsolorrean. Beraien amak seme-alaba guztiekin eman zuen, batekin izan ezik, errazionamendu garaia baitzen. Errazionamendu garaian galdu omen zen atsolorra egiteko ohitura.</p>

3. Errazionamendu garaia; errotara ezkutuan

- **Erref:** BRS-016/005
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu garaian ez zegoen ogirik. Euren etxean ez zegoen taloa jateko ohiturarik, baina errazionamendu garaian hasi ziren egiten. Garai batean ezkutuan joan behar izaten ziren errotetara irina egitera. Aresoko errotara joaten ziren. Inguruko asto batek errotarako bidea omen zekien eta denek asto hura nahi izaten zuten.

4. Senarrek 3 eta 7 urte egin zituzten soldadu

- **Erref:** BRS-016/006
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Doloresen senarra Elduakoa zen, Etchezahar baserrikoa. Aita-semeak bizi ziren

bertan. 17 urterekin, gerrara joan behar izan zuen; eta, gerra ostean ere, beste 7 urte soldadutzan egitea tokatu zitzaion. Luciaren senarrak 3 urte egin zituen. Senarren eta ingurukoen fronteko kontuak kontatzen dituzte. Luciak idazten zizkien gutunak ingurukoei, eta oraindik gogoan ditu helbideak. Eskutitz bidez jakiten zuten elkarren berri. Dirua (5 duro) ere bidaltzen zuten gutunetan.

5. Senarrak Espainia pasa zuen gerran

- **Erref:** BRS-016/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Senarrak, gerran zeudenean, baimen gutxi izaten zuen etxera etortzeko. Luciak senarra nondik nora ibili zen gerran azaltzen du. San Pedro bezperan itzuli omen zen gerratik lizentziatuta.

6. Santiago egunez sartu ziren erreketekak Elduainen

- **Erref:** BRS-016/009
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasiera. Errepublikanoak inguruetako etxeetan ibili ziren arma bila, eta Nafarroa aldera egin omen zuten; baina, gero, atzeraka-atzeraka etorri omen ziren. Santiago egunean sartu ziren erreketekak Elduainen: guardia zibilak, txapel gorridunak, apaiza sotana luzea eta txapel gorriarekin... "¡Viva España! ¡Viva Cristo Rey!" oihukatzen omen zuten.

7. Errepublika garaian apaizak jazarrita

- **Erref:** BRS-016/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Erepublika garaian apaizak jazarrita egon ziren, tartean euren lehengusu Kaximiro, sakramentinoa. Kaximiro goizean goiz joaten omen zen mezara eta kanpairik ere ez omen zuten jotzen, mehatxatuta zeudelako. Errepublika nahaste handiko garaia izan omen zen.</p>

8. Errepublikako ikurrak kendu eta tiroak hasi ziren

- **Erref:** BRS-016/013

- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gogoan dute errepublikako ikurrak nola kendu zituzten. Errepublikako banderari izkinetako morea kendu eta horia josi zioten, eta kontzeju gaineko leihoan jarri zuten. Udaletxeko Manuel Azañaren argazkia erre egin omen zuen guardia zibil batek. Gauean tiroak hasi ziren, alde batetik errepublikanoak eta bestetik erreketek. Gerora, errefortzuak etorri ziren eta kanoikadak ere izan ziren. Abuztuaren 10ean, San Lorentzo egunez, festak ziren Berastegin; eta, han zeudela, kanoikadak erori zitzaizkien inguruan.

9. Errepublikanoak fabrikara material bila

- **Erref:** BRS-016/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Aita zaintzaile moduan ibiltzen zen paper-fabrika. Gauez, bakarrik zegoela, errepublikanoak etorri zitzaizkion mantak, papera, gasolina eta abar eskatzera. Gero jakin zuen produkzioko zuzendariak esan ziela norengana jo material bila. Zuzendaria bera ihesi joana zen eta gehiago ez omen zen itzuli fabrikara.

10. Etxean bildu ezindako besteko "kupoa"

- **Erref:** BRS-016/017
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:32:16. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kalekoek okerrago pasa zuten gerra ostean, errazionamendu garaian; baserrian beti izaten zen zerbait jateko. Sasoi batean etxeko jeneroa entregatu ere egin behar izaten zen eta bildu ezindako baino kupo handiagoa jarri zietela gogoan dute.

11. Gerra garaian bi dantza-talde: karlistena eta nazionalistena

- **Erref:** BRS-016/021
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Berastegiko festetan txistua eta danbolina izaten ziren eta dantza egiten zuten. Dantzasoka ere egiten zen eta euren osaba batek ere egiten zuen dantza. Gerra garaian bi dantza talde egoten ziren, bata karlistena eta bestea nazionalistena. Gerra ostean, berriz talde bakarra. Gerra aurretik ere ba omen zen dantza-taldea.</p>

12. Igandetan bezperetara eta ondoren dantzara

- **Erref:** BRS-016/022
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dolores igandero joaten zen Berastegira; lehenengo bezperetara eta gero dantzara. "Aimaritarako" (Ave Mariatarako) etxera etorri behar izaten zuten. Berastegiko mutilek gero neska-laguntzea egiten zieten.

13. Elduaingo alkate batek dantza lotua baimendu zuen

- **Erref:** BRS-016/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Dantza heldua debekatuta zegoen. Apaizak agintzen zien alkateei debekua ezartzeko. Elduaingo alkate batek hobe zela apaiza kontra izatea herri osoa baino eta debekua kendu zuen. Jaietan beranduagora arte ibiltzeko baimena ere izaten zuten.

14. Elduako festak

- **Erref:** BRS-016/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Elduan abuztuaren 15ean izaten dira festak, Ama Birjinaren egunean. Gerra

aurretik txaranga ere ekartzen omen zuten. Jai arratsaldean txokolatea hartzera joaten ziren ezagun baten etxera. Berastegiko gizon batek soinua eta txistua jotzen zituen festetan. Elbarria zen gizona eta astoan etortzen zen. Berastegiko nano batek ere jotzen zuen soinua, baina hark kategoria gehiago zeukan.

15. Elduako eliza egin zenean 3-4 etxe bakarrik ziren

- **Erref:** BRS-016/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Elduako eliza parrokia izana da eta garai batean bikarioa bizi izan omen zen bertan. 600 urte inguru omen dauzka. Elduako eliza egin zenean 3-4 etxe besterik ez omen ziren. Inguruetako baserriak.</p>

16. Auzorako apaiza eskatu zioten obispoari

- **Erref:** BRS-016/030
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Apaizak kanpotik etortzen ziren meza ematera. Beraiek beneditarrak ezagutu izan dituzte, baina aurretik sakramentinoak etortzen omen ziren. Igandera egoten zen meza Elduan, nahiz eta meza nagusira Elduainera joaten ziren. Auzotarrek apaiza auzoan izatea nahi zuten eta obispoarengana joan ziren eskean. Obispoa bertara etorri zitzairen. Apaizarentzat eta elizako gastuetarako diru-iturria behar zen eta paper fabrikako nagusia egin zen kargu. Apaizari nomina jarri zioten eta elizarako behar ziren gauzak ere hark ordaintzen zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com